

O BABAKOAK

Bernardo Atxaga



n a r r a t i b a

ere in

OBABAKOAK

Narratiba, 105

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko urrian.

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Bernardo Atxaga

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-242-1

L. G.: S.S. - 1071/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Bernardo Atxaga

OBABAKOAK

EDIZIO ZUZENDU ETA EGUNERATUA



...começam aqui a aparecer os livros,
folhas às vezes tão efémeras como as das árvores,
e não tendo como elas o encanto do verde,
do murmúrio e da sombra.

EÇA DE QUEIROZ, *Cartas de Inglaterra*

CAMILO LIZARDI ERRETORE JAUNAREN ETXEAN
AURKITUTAKO GUTUNAREN AZALPENA

Izkribuak hamaika orrialde ditu, holandarra deitzen den tainakoak, eta soilik alde batetik daude idatziak. Gehientsuenek, zeuden sotoaren hezetasuna dela medio, ezabaturik daukate goiparteko zenbait lerro, eta lehendabizikoa, urte guzti horietan lurra ukituz egon delarik, irakurtezina bihurtu duten mantxez bete-ta dago. Datarik ez daraman arren, erretorearen gutuna mila bederatziehun eta hirukoa bide da; izanez ere, Obaba herrian hiru urte daramala adierazten du sinadura aurretik erredaktaturiko agur-rean eta Camilo Lizardi –hala dio behintzat egun erretore denak–mendearen hasierarekin batera egin zen bailara horretako herrix-ka eta auzo guztien kargu. Ohiturak edo izaera sobera urduri ba-tek bihurrituriko grafia barrokoak, eta baita arazoari ematen dion tratamenduak ere, azkeneko honek bereziki, eskola apartekoa adie-razten dute, orduko apaizgoan ohi zena baino askozaz ere abera-tsagoa; Jesusen lagunen ikastetxeetakoa, apika. Gutunak ikaskide izan-dako bati zuzendutakoa dirudi, baina ezin da jakin, izkribuaren aipatu egoeragatik, haren izen eta gorabeherarik; are gutxiago sekula bi-dalia izan ez zelarik. Sumatzen da, halere, Lizardiren laguna ez ezik,

nolabaiteko autoritatez jantzitako elizgizona ere izan behar zuela; gutunak, hain zuzen, eta gai bezala hartutako gertaeraren esplikazioekin batera, aitormentzako kutsu bat dauka, kontseilu edota gupida bila letorkeen gizon erori baten zapore betiere mikatza.

Aurreneko orrialdean, irakurri ahal den apurraren arabera be-daio, erretoreak bere pesadunbrea –hitz hau garden ageri da bos-garren lerroari dagokion tokian– azaltzen dio lagunari. Geroreago, osorik dagoen zati batean, “naastaturic eta Jaincoac escu jarri dizquion tresnaz irabaci ecin dezaqueen proba baten aurrean” sentitzen dela esaten du. Jada bigarren orrialdean, eta aitzinsolas modura oraindik, hitzez hitz eta orduko ortografia ahal neurrian errespetatuz transkribatzen dudana erreflexio hau dator:

«Edocean astronomia liburutan aurqui cezaqueagu, ene lagun maitea, vicitzaren gañean egiña izan den metaphoric zucene-tacoa. Gure univertsoa –ciotec Laplaceren discipuluac– espacio infinitoan bacar bacarric cebillen bola erraldoi baten leerquetaquin jaio cen. Arrezquero, ala izarrac nola planetac edo asteroideac, leen materia bera cirenac, urruntzen ari dira elcarrengandic, urruntzen ere, astapen puntu artatic. Eta gañera, gueroz aundiagoa da pusqueta bacoitzac bere iesean daraman abiadura. Monradec itzal-arrasto bat bezala icendatzen duen adaña bi bider ere pasata daucagunoc, melanconia tanta batez beguiratzen cieagu cientziac oi duen laconismoz escribitutaco lerro oriei. Ez baitugu, atzecaldera erreparatzean, garai batean gurequin bat eguinda cegoen munduric icusten. Falta zaizquiguc, exempli gratia, beñ, dandai jarri giñeneraco, aldamenen sentitu izan guenituen arnasac. Neri beintzat falta zaizquidac: orain amabost urte il citzaidaquean ama; duela bi, ne-requin vici cen arreba. Ba dituc oqueitamar urte anaia gaztea ultramarra joan cela. Eta i erorri, ene lagun maitea, urrun ago; ireganaco premia secula baño latzagoa den sasoi onetan, urrun ago».

Oso txukun iraun ez duten aipamen biblikoak datoz gero, Sionetik erbestera beharrean gertatu zen herriarekikoak gehienak, eta

hirugarren orrialdean sartzen denarekin batera gutunaren gaiari hel-
tzen dio; ez, ordea, une haietan nozitzen zituen malurrak lehena-
go aipatu gabe:

«...vicitzaren atzaparrac eraso eguiten digutela ic badaquic; eta
ez ote bere indarra eta seta costaldeco lurrari, arcaitz gorriari, zati
chiquiac, arri chincharrac, ostutzen dizquion ichasoarenac? Baña
desbideratzen ari nauc, eta asia egongo aiz dagoeneco quezcatzen;
cer suertatzen zaio Lizardi zaarrari olaín lanturos mintzatzeco, gal-
detuco dioc eure buruari. Ecen bazequiat, ondo acordatzen zaidac
eta, cein griña vicico guizasemea aicen, eta cein guchi maite duan
luzamendutan ibiltzea. Baña acordatu adi, ire partez, nola gusta-
tzen citzaidan erretorica, eta barca eguiac. Ba nijoac, beraz, gutun
onen jatorrian dauden guertaeren berri ematera. Izan ezac pacientzia
santua, eta entzun eguioc arretaz, luce jarduten banaiz ere, Jaincoaren
cristau umilloni. Eta eduqui ezac, betiere, Ecclesiastés-eco oiur gogoan:
Vae soli! Bai, chit zorte zacarra duc bacarric dagoenarena,
eta are tamalgarriagoa, abuztuc eguzquiac millaca eta millaca erne
dituen elcho oiec bezala, ecin alchaz, indargue, dabillenarena. Eta
besteric gabe equiten cioat aguindutacoari.

Orain sei illabete, ilbeltzan, mutico bat, amaica urte cituena
bera, mendian izcutatu uen; betico, orain daquigunez. Javier –ecen
gure santu aundiaren icena baitceraman– noiznai echetic aldegui-
ten dutenetacoa guenian, baña ez dezaqueala pentsa bere iesac guc
denoc, zaputzaren poderioz edo, eguin oi ditugun moducoac ci-
renic; gogoan izango duc, nosqui, bioc alcar artuta artasoro bate-
an gaua pasa guenuenecoa, eta dena maisu berriaren icaraz guen-
biltzalaco... baña, esaten diat, Javierren cer-nolacoac ez ituen
arruntac. Eche propioric gabecoa celaco, alde batetic, sasicoa, emen
erabiltzen den icenez esateco. Aita ezagutu ez zuelaric, ama ume go-
rritan il citzaioquean, eta ostatuan –bere sortzaille ezcutucoac bi-
daltzen cituen duro cillarrezcoen truc, vox populi dixit– eduqui-
tzen ciaten gaisoa. Zacurrac, ic ederqui daquic, antziña batean izan
diren otsoa burura etortzen zaienean, nagusiaren babesa utzi eta
basoan barrena, guc senti ecin dezaquegun ots bati seguica-edo,

abiatzen dituc. Bada, sena berdiña eracusten cian gure muticoac: cegoen famelia orretan odolac betiere aguindu oi duen maitasunic ecin aurquituz, escapa eguiten cichien, egun bateraco sarritan, aste osoraco cenbaitetan. Inior guchic sufritzen cian orrequin; eguia esateco, eta nitaz aparte, ostatu berean apopillo egoten cen Matias gracia zuen agure batec bacarric. Etorrico da, bai, gosetzean, ara emen bere guraso ordecoei –liburu gabeciari ainbeste bider laguntzen dion bestialismoaz– sortzen citzaien ondorengo comentario bacarra. Azqueneco aldian bai, ainbat atera uen, joan cen egunetic beste amar pasata ceudelaric, Javierren billa. Esan diadan bezala, sei illabetezco aspaldian falta zaiguc; etzeoc, beraz, esperantzaric.

Eguizac contu, orain, gure umeteriaren biotz shamurretan eta, Jaincoaren bildots garbiac diren partez, gorde izaten duten inucentziaz. Obaban dauzcagunac corrica batean cebiltzac goiz eta arratsaldez, ecen, elizari amaica vuelta eman ezquero murrutic cintzilica dagoen gargola cantatzen asico zaiela uste baitute; eta olacoric secula suertatzen ez den arren, berac, ilusioa galdu bearrean, gaizqui contatuari ala lasterregui edo motelegui ibiltzeari bota culpac eta amaica vuelta oriecmateari equiten ciotec ostera. Orien artean bein ere ecin icusi, ordea, Javierric. Ecin icusi or, eta ecin icusi uda partean ieri eguitera edo chorien cabien billa joaten diren muticoen artean. Aushe duc, ene lagun maitea, ume guizajo orren beste alde: ceucan bacardadea. Berecia uen, izaqueraz bezala gorputzaz; colore erabat zurbillecoa izanic, aurpeguia ichusitzen cion oriin batez inguratua cichaucan beguitarte. Icusten nuen bacoitzean, bere tanquera illunac uquituta».

Hola bukatzen da laugarren orrialdea. Hurrengo, bosgarrena, erdi usteldua dago, eta lizundura kentzen saiatu naizen arren, errainu urdinxka huts batzuk bezala gelditu dira parte horretako hitz gehienak. Ulertzen ditudanen arabera, badirudi Camilo Lizardi erretores jauna, oroitzapenen eraginez-edo, hasierako pentsakizun etsietara eman dela berriro. Esate baterako, “chirrina-pantica” deitu zomorroa aipatzen du zazpigarren lerroari dagokion tokian. Begiratu

dudan entziklopediak, xehetasun teknikoak eman ondoren, hau zioen: izadiak ez du, oro har, krudeltasunik ezagutzen. Animalia batek gosea asetzeko hil beharra daukanean, minik gabe, harrapatu duenari sufrimendurik jasanarazi gabe, burutzen du ekintza. Baina badira salbuespenak, arestian definitu dugun txirrina-pantika tartean. Intsektu honek poliki-poliki, bizirik dauden bitartean, amonru biziz, jaten ditu bere biktimak. Honaino entziklopediak diotena. Ez litzateke harritzekoa izango Lizardik, mutikoaren zortea go-goan, bizitza intsektu horrekin alderatu nahi izatea. Baina, dena den, hauek ez dira neure kolkotik atera ditudan erreflexioak baino. Jarrai dezagun, bosgarren orrialdearen zati irakurgarrian, erretoreak zinez zioenarekin:

«...baña ez pentsa, lagun maitea, emen isuri dudana baño gueyo eguin ez nuenic. Bisitatzen nian aalmena neucan guztietan, eta etortzen citzaizquidan itz alaienac esaten nichizquioan. Alferric uen dena, ordea.

Contua duc, muticoa izcutatu eta andic illabete batera, marchoco leen igandez oquer ez banago, basurde zuri bat azaldu cela erriaren cale bacarretic barrena. Iragan egunetaco edurraren ondaquinez jostatzen ari ciren ume batzuegana jo omen cian, eta anche gueratu omen uen, beguira, lasai oso, arriscuaren centzuric ez duen aur bat bezalash...».

Hemen du amaiera bosgarren orrialdeak. Seigarreneko lehen hiru lerroak ere ezabatuak daude. Eta honela segitzen du gero:

«... badaquic nolacoa den emengo jendea. Ez dic animalia maitatzen, eta gauza bera uque, ene iritziraco, biotz chit legorrecoa dela esatea; ecen, izatecotan, ez al litzaque maitasuna, ontzico ur guztia gacitzen duen gatz coscorraren guisa, lecu denetaraño irichi bear? Ni Obabara allegatu nintzenetic guchira, colore bicitaco chori bat azaldu uen, galduta nonbait, elizaco campandorrean. Seguru asco ichasotic cichatorren, eta an nichoan ni, leiotic beguira, piztiaren

etorrera ceru onaren señale modura gozatuz, eta or non agertzen diren errico bizpairu guizon bere pistoizco escopetac pronto cituztela... chori gaisoa chirchillatua zichoan nic ecer esateco beta artu baño leen. Olacoxeac dittuc emengo cristauac, ez ditec antz aundiric gure Francisco santuarequin.

Bada, basurdearequin ere berdiñ jocatu ciaten. Echecho leioitic gueyenac, cale erditic atrebituenac, tiroca asi ituen; bai zauritu ere. Izugarrizco currincac eguiñez joan omen uen ordura arte paque paquean ibillitaco animalia. Colore zuri bichicoa cenez eiztarierei are eta zorroztuago jarri cichaizquien ortzac, eta seguituan abiatu ituen atzetic. Gau artan bertan, utsean etorri eta ostatuan erroncan ari cirelaric, an apopillo cegoen Matias agureac onaco itzoc bota omen cizquian:

–Gaizqui ari zarete, bera onean etorri eta zuec tiroca artu: Etorrico dittuc ordañac.

Gogoan izango duc aurrerago ere aipatutaco Matias orrena. Esaten nianez agure au guenian Javier cenarequin mintzatzeco gai cen bacarra. Bata cein bestea isillac izanic, ushatu eguiten cizquiaten mututasunac elcarrequin ceudenean. Bada, eiztari jendeari cera demostratu nai izan cichoan: mendian izcutatutaco muticoa ez cegoela illa, baicic eta basurde biurturic seguitzen zuela munduan. Errian azaldutaco animalia ura cela Javier. Guztiac icusi zutela bere colorea eta mutur gañean ceucan oriña; baita cein lasai sartu cen plazan ere. Eta ia ez al cen Javier ura, basurdea egun artan bertan bezalashé, jostatzen cebiltzan umeei beguira egoten. Eiztariac basurdearen oriñarena cela-eta, discusioan asi omen ituen, agurearequin estraña, elcarren artean guero, eta ic esango didac ce jende clase den au, umea basurde biurtzearenari casoric eguin gabe, oriñ baten gorabeerarequin erdi borrocan asten dena... erri orritan, beroa gordez seguitzen duten ildaco izarrac bezala, sinesque-riac indar aundia dic, eta agureac...»

Seigarren orrialdea nahiko erasana dago. Hamar lerrotan banatzen diren hitzetatik *icusi* eta *ziquiña* soilik uler daitezke. Basurde

zuriaren inguruan gertatu ziren aurrenekoak ezin ditzakegu, beraz, jakin. Bai, aldiz, gerokoak, ezen, orrialde honen beste zatia nola zaz-pigarrena ederki ulertzeko moduan kontserbatzen baitira.

«...azaldu uen berriro, gauez oraingoan, eta Obabaco plaza-tic eun metrora dagoen baserrira isil-isillic joan eta ateari colpeca eta ozcaca egon uen ia ordu betez. Echecoac garraisa, macacorro batean, asi ituen ortaraco gauza izan cirenean, eta nic neronec ere entzun nizquian –eta contu eguizac tontor batean eta naico urruti dagoela erretorechea–. Animaliei guizonaren barruan baño ez dau-den potentziac eranstea cilegui balitz, basurde zuria vorondate criminalac aguinduta cetorrela esango niaque. Sartzeric ez ceucala icasi zuenean, ushar eguiten ibilli uen baratzan, eta galera orrequin con-formatu bide ez celaric, bi abere il cizquian basorantz iesi joan aurretic. Suspertu eguin ituen orduan eiztarien grifnac, eta ez orienac bacarric; baita ordura arte iñolaco escopetaric artu gabe ceuden maquiña batenac ere. Contra jardun cian, oi zuenez, Matias agureac. Holaxe esanez:

–Gaizqui ari zarete. Utzi basurde ori paquean! Zabiltzaten modura gaiztotzea besteric ez duzue lortuco! Cer eguin dizue Javierrec!

–Demonio babua, ago isillic –erantzun omen cichioten–; ez al duc bart eguin duena icusi?

Contu eguizac emen pobrecia latza daucala jendeac; zapata berriac erosteco sasoa etortzen zaienean, bi egunetic bein jateari equiten ciotec, aín ibiltzen dittuc estu. Onetic ateratzeco moducoac izan ituen, emengo neurritan beintzat, basurdeac eguindaco calteac. Jendeac agurearen aurrean artu zuen joera ez zaic arrigarria guertatu bear.

Baña Matiasec ere bacizquian bere arrazoiac:

–Eta zuec ez al zarete cein echeri eraso dion conturatzen? Ez al zarete jende orrec Javierri ematen cizquion jipoyez acordatzen?

Esaten zuenac bazian centzuric; baserri ortacoac, guerra sa-soietan ere –eta ene aurretic emen serbitu zuen apaizac esan cichian au–, bere gogortasunagatic nabarmentzen omen ituen. Ostatura

etorri eta pisca bat piztutacoan aulenarequin sosegatzen cirela ere erri onetaco edonorc zequic; besteric ez bazuten, muticoari zaplaztacoac emanaz. Baña ba al cegoen, egon al citequean arremanic bi gaucen artean, ara emen neure buruari eguiten nion galdera. Ba al neucan arrazoiric agureac cioena ez onartzeco? Obaban ascotan entzun dudan ipuiñ zaar batean alaba batec ola galdetzen cioc bere aita gaiztoari: “zuc beiñ ere pentsatu al duzu ill ziñezquenic?”. Eta ori gertatzea oso zalla dela erantzuten dic galdetuac, ezen “nic anai bat ceucanat alaco menditan, leoi bezala dabillena. Leoi orren barruan erbi bat cegon, eta erbi orren barruan uso bat. Uso orrec arrautz bat ceucan bere barruan, eta arrautza ori emen, copetan, norbaitec leertzen ez bacidan, ni ez naun ilco”. Entzuten ari den umeac bacequic, ordea, sumatzen dic, erlacio ori billatu eta aita gaiztoa, deabrua ere badena, ilco duen morroia izan badela. Ez ote nabil ichu, ez ote naiz ipuinco morroia baño macalagoa? Ez ote da arazo onen erlacioa erioztetic usoac ceucan arrautzara cegoena baño errazagoa?

Baña ez nian gogoeta ori eguiteco betaric izan. Eicea asi eta irugarren egunean basurdeac partidaren mutur batean, apur bat atzeratuta, cebillen gazte bat il nai izan cian...».

Hementxe hasten da zortzigarrena. Orrialde hau atzekoz aurrera kokatua egon delarik, ondo dago goiko partean, lehengoaren jarraian, eta txarto behekoan, non zortzi bat lerro hondatuak dauden.

«...Oraindican ere ondoezaz ceoc. Beste guztiac cera aldarri-catzen ciaten: basurde zuria seguica joan zitzailea, eta zauritua baccaric eta apartian noiz geldituco cen zain egon cela. Matias agureac leen esandacoac berriztu cizquian:

–Emendic aurrera obe duzue burutic zacu bat botata ibiltzea. Aurpeguia aguerian duzuela joaten bazarete eicera, arec ezagutu eta bengantza artuco dic.

Egun aietaco batean udaberriaren etorreraz oartu niñuan; eta ez diat onequin puntu artan bertan eldu cenic esan nai, ez eta

guchiagoric ere. Cein urduri eta quezcaturic nenbillen jabetu adin mintzatu natzaic orrela; ecen asteac cichamazquian enarac egaca, ene leio aurrean sarri ascotan, eta azpichoriac ere eguiñac cizquiaten orduraco elizaren cimitarioan antolatzen dituzten cabiac. San Jose lorechoac aspaldidanic oriztatzen cizquiaten belazeac. Naturac bere legueac ceuzcac, gu ere barruan artzen gaituela; bere ardatzac jiratzen duenean gizonac ere jira eguin bearra ceucagu, eta aguintzen digun alderantz gañera. Baña udaberri orretan, Obabari daguquionez, ori ez uen erabat bete. Guizonezcoac ez ituen egurretara abiatzen, ez cizquiaten mendico belaze urrunac segatzen. Emacumeac eche alboco solora joateco icaraz cichauden. Ire ciudade orretaco gaceta batec ondo asco icendatu cian emengoa: basurde batec izututa dauca Obabaco errisca. Eguia, eguia galanta. Ba al daquic cenbat aldiz jaichi cen basurde zuria...».

Zortzigarrenean ez dator irakur litekeen besterik. Bederatzigarrena eta hamargarrenaren ia dena garbi daude, eta letraren tamaina urritu egiten da apur bat okertuta dauden lerroetan.

«...Matiassec esan cituenac gorpuztuz joan ituen, guero eta be-teagoan datorren profecia bat bezala. Basurdeac eicean ibillitaco jendearen echeac atacatzen seguitu cian, etengabe, banan bana, planguintza baten ildotic ari bailitzan. Gauzac ola ceudela agurea nerequin itzeguitera etorri uen. Alcar izqueta –ordu aietaco larritasunic gabe, alere– itzez itz ceucat gogoan. Alashe jartzen diat urrengo lerroetan, diosalaren ondorengoequin asiz.

–Gauza bat galdetzera etorri naiz eta cenbat eta lenago bucatu, obe. Basurde zuria il al nezaque?

Zacartasun arec min eman cichian. Matiassec muticoa iltzeco baimena escatzen cian, nosqui: animalia eta muticoa bat ituen berarentzat. Eta nic neronec ere dudatu eguiten nian. Gaizqui eguiña, esango duc ic. Apaiz batec etzeucac aimbete liburuz, esanez, eta eracustaldiz esan zaiona dudatan jartzeco autoridaderic. Baña, lagun maitea, gizonac lizar bajuac gaituc. Eta ni ere jaquiñaren gañean portatzen cen basurdearen lillura illunaren pean nichoan. Eta icaratuta ere bai.

–Baña nola eguingo du i bezalaco zaar batec eiztariec asma-
tu ez dutena?

–Javierren oiturac ezagutu ezquero lana erraza da –au esate-
racoan abotsa doi-doi igo citzaioquean eztarritic. Urrengo itzac jan-
tzi zacarragoaz etorri ituan–: eta gañera ori nere contu geratzen da.
Nic il al nezaquean galdetzen diot. Eta erantzun bat ematera bear-
tua dago berorri.

–Il bearric ba al dago, Matias? Bolada au pasaco duc...

–Orishe dagola! –moztu cichian zacar–. Orishe dagola il bea-
rra –seguitu cian doñu goibela gora cambiatuz–. Berorri ez al da
cupitzen, ez al du berorrec penic artzen?

–Etzequiat ba...

Baña cer esan niezaioquean sumatzen ari nintzeneraco, Ma-
tiasec odolez basitutaco pañelu bat aterea cichaucan saquelatic. Ba-
surde anca zati bat sortu uen tolestadura nazcagarri artatic. Atze-
ra eguin nian, eta garraisi. Berac peto beguiratzen cichian:

–Umea asco ari da sufritzen –asi uen, eta eztarria marranta-
tu eguin cichaioquean. Ecin nian copetatic jaso, eta isillic egon ni-
ñuan–. Jende cobardia dago emen, cepua ez denian venenoa, eta
venenoa ez denian tranpaco zuloa... acabatze mingarriyac denac.

–Baña, Matias... basurde orrec icaratuta gauzca...

Ez nichaucan combentzimenturic, eta oztopo larriac salvatuta
allegatzen citzaiquidaquean itzac eztarritic barrena. Matiasena, or-
dea, bacar izqueta uen. Irripar aul bat erne uen bere ezpañetan.

–Cepuan arrapatuta dagoen anca bere ortz propioez moztea
basurdearen leguea duzu –eta bere irriparra zabalduz–: Azcar ica-
si duela chiquiac, cea!

Eta bere semeaz arro dagoen aita baten aurpeguia eracutsi cian
une batez. Bearbada Jaincoaren aurrean ere Javierren guraso beza-
la presentatuko duc. Eta seguru Gure Jaunac esaten diola: bai, arra-
zoiarequin abil, i au ume orrec aita. Ez jaio orduco apartatu cen gui-
zon gaiztoa. Ez eta aimeste mezquindadez tratatu induan
ostatucoa ere. I, i bacarric.

–Il al nezaque? –galdetu cichian Matiasec.

Asieraco illuntasunera biurtu uen bere aurpeguia. Cupidaren arrazoiac maitasunarenac baño fuerteagoac dituc oraindic. Matiassec biac eracusten cichizquian bere beguiradan. Ecin zuela, aleguia, berac aiñ maite zuen umea sufritzen icusi. Obe cela lenbailen bucatzea.

–Bai, eguin behar baduc, eguin ezac lasai. Ez duc pecatu!

Ondo eguiña, esango didac ic. Bada, ez, ez..., guero guertatutacoac contuan...».

Hor bukatzen da hamargarrena. Azkena bi lerroren faltan dago. Beste guztiak, sinadura barne, aisa konprenitzeko moduan irau du.

«...Obabaco inguruetan, erretorechetic bertara, alderantziz jarritaco piramidearen forma daucan sacana ceoc; bada, orren verticean dagoen coba izaten omen uen Javierren jostalecu usadiozcoa, ecen, seguru asco, compañía egoquitaz eduquico baitzituen ango arrubio eta lupuac. Matiassec aurre sentitzen cian basurde zuria andic ibillico cela; ori cichaucan buruan nigana etorri cenean ere. Orain bacequiat arriscuac ez ciola ajolic; ecen, begui vistan ceoc zulo ura irtenbideric gabecoa dela, iñongo eiztaric ez lioquela basurde bati an ichoingo.

Baña, esaten diat, au guztia berandu jaquin diat. Nic lecu onen berri izan banu “zuc ez daucazu, cristau bezala, zure bizitza arriscu mortalean jartzeco escubideric” delaco batez erantzungo nichioqueen benetan erdiragarri citzaidan, eta zaidan, galdera ari: “Il al nezaque basurdea?”... baietza ceñ ezetzaren erresponstabilidaderic artzen ibilli gabe. Jaincoac ez eman arguiric, ordea, eta nic ez asmatu.

Baña joan gaitecen alcar izqueta aren ondorenean guertatu cirenac esplicitzera, eta barca eguiac esan laburrez erabaquitzen badiat istorio onen azquena. Acordatu bearrac berac oñacez betetzen nachioc.

Matiasequin egon nintzenetic urrengo goiz chinta eldu artean pasataco orduac ene vicitza osoan eguin dudan gaubelaric

micatzena bezala gogoratuco diat betiere. Ez nichaucan soseguric. Arguia zabaldu cenean, lañoac bere mende artzen cizquian muño cascarrez goraco guztiac. Ceru urbil eta itogarri arec ez cidala ecarrico batere onic sentitzen nian. Eta ala izan.

Contua duc tiroa entzun nuela eguarteco amarretan eta, zain nengoenez, corrica joan nintzela erretorechetic legoa batera-edo asentatzen den sacan orretara. Allegatu ere bai azcar asco.

Bereala conturatu niñuan Matias cerraldo cegoenaz, eta basurdearen odol arrastoari seguica abiatzeco laifñ adore eman cichian Jaincoac. Sacanaren gaña artu nueneraco icusi nian: arnasca, lepotic ustutzen ari cela. Eta beragana macurtu nintzenean cer esango duc entzun nuela?... bada edocein umec, olaco trantze batean, esango luqueena: “ama! ama!”... Ama! esaten cian basurdearen abuac, amari deitzen cichion, eta antsi eguiten cian, ez daquic nola, ez daquic nola eguiten zuen antsi... irudipen uts bat esango duc ic, eta neri ere ala esaten cidac orain arte izan naicenac, nere cientzia zaletasunac, nere fedecac... baña, ez daquic nola eguiten zuen antsi, ez daquic. Neronec errematatu nian, arri batequin, an, bacarric, arri batequin colpeca, comprenitzen didac? Oñacea icusten citzaioquean beguietan, eta Matiasac asitaco lana bucatu bearra cichion.

Ecín diat onequin. Azquen gauza bat bacarric, aitormen gisa: atzapar baldarrac michirrica deseguiten duen antzera autsi nachioc guertaerac. Ene lagun maitea, etorrigo baintzaque, ce mesedea nerretzat! Iru urte ceramazquiat Obaban; ez al da gueyegui?».

Sinadura dator ostean. Dokumentuak izan lezakeen alderdi bat aipatu nahi nuke amaitzeko. Obaban, oraindik ere, Javier mutikoa Camilo Lizardiren semea ez ote zen galdezka dabiltzanak badaude; testuaren bigarren irakurketa batek ere susmo hori zilegitu egiten du. Are gehiago gutun hori idatzi zen erretore etxean bertan gelditu zela aintzakotzat hartzen bada; izanez ere, erretoreak ezin zezakeen egiazen parte bat baino jasotzen ez zuen konfesio bat bidali.

JOSE FRANCISCO: OBABAKO ERRETORE ETXEAN
AZALDUTAKO BIGARREN AITORTZA

Halabeharrak edo Jainkoaren borondateak bi aitortza bildu zituen Obabako erretore etxean, eta elkarren ondoan eduki agian berrogei urtez. Baina bigarrena ez zen, Camilo Lizardiren gutuna bezala, ni bezalako paper aztertzaile batek aurkitzeko modukoa; zeren eta, esan dezadan aurrera gabe, ez baitzegoen, bigarren aitortza hori, inongo paperetan idatzia, baizik eta hari magnetiko batean grabatua edo *markatua*.

Berriro diot: nik ez nukeen aurkitu ahal izango. Baina, zorionez, laguntzaile bizkorra izan nuen erretore etxeko nire miaketa hartan, Obaban frantsesa deitzen duten gizon bat, Alberto Dandreaux Lasa, eta bera izan zen sotoko apal batean gordeta zegoen kaxa beltza ikusi eta aintzat hartu zuena.

–Hau zer den ba al dakizu? –galdetu zidan.

–Aparatu bat dirudi, baina zein modutakoa den, hori ez dakit –erantzun nion mezatako liburu baten gainean haizematu ondoren.

–Hari magnetiko bat da. Eta, oker ez banago, nire aitak Obabara ekarri zuenetakoa.

Ez ulertua eginez inguratu nintzaion.

–Zer dela?

–*Hari magnetikoa* esaten zion gure aitak. Garai bateko magnetofonia, beste modu batera esanda.

Frantsesak nire besoetan jarri zuen kaxa beltza, eta honi erretzen zitzaion hari mutur bati tira zion.

–Ikusten duzu? Hemen dago haria.

–Gutxienez bost kilo bada –esan nion kaxa ostera apalera bihurtuz.

–Bai, jakina. Lehenago trasteak oraingoak baino pisuagoak izaten ziren.

–Nahi baduzu, eraman etxera. Nik ez dut ezertarako behar –esan nion.

Frantsesak pozik hartu zuen eskaintza.

–Gustuz begiratuko nioke, bai. Nik ez dut beste entretenimendurik. Bakarrik traste horiekin jostatzea.

–Aitaren itzala, noski –komentatu nion.

–Hala izango da. Baina hura ni baino gehiago zen. Hura Frantziara joaten zen urtean behin edo bi aldiz, eta hamaika bitxikeria ekartzen zituen handik. Egia esan behar badizut, beste irabazpiderik ez zeukan.

–Zer egiten zuen bada? Ekarritakoa saldu?

–Horixe. Inguru horietan ezagutu ziren aurreneko radio, magnetofoni eta abar guztiak nire aitak ekarri eta saldu zituen. Traste hau ere bai.

–Garai ederrak ziren kontrabandorako. Ez zuten antzik oraingoekin –bukatu zuen.

–Ea konpontzen duzun –esan nion kaxa beltza bere eskuetara pasaz.

–Saiatu behintzat egingo gara –agindu zidan.

Halere, nik ez nuen pentsatzen hari hura betea egon zitekeenik. Ez zitzaidan burutik pasatu ere. Eta hortik nire harridura –hama egun geroago, erretore etxeko paperekin bukatzeaz nengoela –frantsesak “etor zaitetz hots batzuk entzuteran” esan zidanean.

–Zein hots? –galdetu nion. Baina sumatzen nuen, haren barre-irudia ikusita, ondorenean adieraziko zidana.

–Traste hartan zeudenak, alegia. Hots asko, eta ni orain egi-ten ari naizena bezalakoak.

–Zer esaten didazu? Harian zerbait al zegoen?

–Horixe zegoela. Gizon baten jarduna, ordu erdi batekoa edo.

–Ulertzeko moduan?

–Gehiena behintzat, bai. Baina etor zaitetz etxera eta zerorrek ikusiko duzu. Magnetofoi berri batera pasatuta daukat guztia.

–Ba al dakizu oso albiste ona eman didazula? –esan nion jada bidean ginela.

Elkarrizketa hura goizeko hamarrak aldera gertatu zen. Gaue-rako –frantsesaren etxetik atera gabe–, eskuz kopiatua neukan *Jose Francisco* deitu nahi izan dudana aitortza.

Orain, hilabete batzuk geroago, eta emanak jada holako ka-suetan beharrezkoak ohi diren zuhur pausoak, dokumentua azal-tzera deliberatu naiz. Ez du, nik uste, aurkezpen handirik behar, eta soilik grabaketaren bizpahiru xehetasun adieraziko ditut, har-tara hobeki eta modu osatuago batez uler dadin narratzaileak dio-en guztia.

Eta narratzailea aipatu dudanez gero, berari buruzko datue-kin hasiko naiz. Francisco izenekoak –berak istorioan deklaraten duenez–, berrogeita hamar urteko gizona dirudi. Ahotsa, berez mehe xamarra, pixka bat zakartua dauka, eta zenbait hitz, erre letra du-tenak bereziki, ez ditu ondo ebakitzen; hala, *hegia* entzuten da be-rak “herria” adierazi nahi duen guztietan. Bakanak dira, bestalde, bere jardunean azaltzen diren etendura eta isiluneak, eta gainera gehienek –nik jaso ditudan bakarrak, hain justu– hari magnetikoaren hondamena daukate arrazoitzat.

Kontatzen den istorioa –Dandreaux Lasa *frantsesak* egindako kalkuluaren arabera behintzat– Europako Lehen Gerra Handiaren ostean grabatu zen, mila bederatzehun eta hogeita bostean edo; bai-na bertan jasotzen diren gertaerak askoz lehenagokoak dira, eta –fa-milia oso baten bilakaera erakusten dutenez– zuzenagoa iruditzen

zait *Jose Franciscoren* garaia XIX. eta XX. mendeen arteko mugan kokatzea.

Hari magnetikoaren hasieran –hau ere esan beharra dago, noski–, Franciscorenak ez diren hiru ahots azaltzen dira, kantatzen edo hitz egiten. Ezbairik gabe, aparatua erosi zen eguneko probaketak dira, ia ezin ulertzeko moduan gelditu direnak. Halere, oso garbi uler daiteke, zati horren buruan, taldeko emakume bakarraren esaldi bat: “Ez al duzu ezer esan behar umea? Orain ere ez?”.

Esaldiari, minutu bateko tartetz, Franciscoren istorioak segitzen dio. Ezin esan, beraz, aparatua oso erabilia izan zenik.

Baina ez nadin gehiago luza, azal dezadan dokumentua. Ahalik eta ortografia arruntenean jarrita, honako hauek izan ziren hari magnetikoan entzun nituen aurreneko pasarteak:

«Orain ez da auzoan ia inor bizi, baina ni jaio eta artean ba omen ziren hemen hamazazpi etxe jendea zutenak, eta asko eta asko bi bizitzakoak; eta gurea, berriz, taberna bezala antolatua omen zegoen, mostradore, mahai eta guzti. Jende asko izaten omen zen orduan gure etxean, guregana etortzen omen ziren mina zulotan lanean aritzen ziren gizonak, bai herrikoak eta bai kanpotarrak, baina gehienak, kanpoaldetik etorritakoak; etxerik ez zeukatelako, noski, eta tabernan babesu behar izaten zutelako andre gogoa sartzen zitzairenean. Eta, hala, etorri eta hemen pasatzen omen zituzten gauak; zenbait, apopilo ere egona omen zen, eta izaten omen zen orduan erronka eta sesio franko, eta hala esaten zuen gero amak, gure aitak inork ez bezala zekiela mozkorren baldarkeriak bukatzen, oso esku ona zeukala horretarako. Sasoi hartan etxekoek beti hitz egiten zuten ondo aspaldiko giro hartaz.

Niri hitza etorri zitzaidanarekin batera geratu omen ziren minak, hala erabaki omen zuten frantsesek, edo ingelesak, jabe zirenek alegia, eta kontua izan zen bada beraien patria gaizki jarri zela, nik ez dakit zergatik, baina gaizki jarri omen zen, eta esan omen zuten minekin ez zegoela aurrerabiderik, eta langile jende gutzia gure etxe aurrean bildu omen zuten bakoitzari berea emateko eta

despedidan jartzeko. Geroxeago, berriz, hartu makinak eta kableak, hartu ekarri zuten gauza guztia, eta joan egin omen ziren; eta, jakina, hark buka egin zuen goizetik gauera. Guk taberna kendu genuen, eta nik eduki ere ez daukat gogoan; eta mina zuloak berak ere erdi ezkutatuta zeuden ni koskortu nintzenerako, sasiz eta laharrez zikinduak. Eta beheko aldean, Obabako kalean noski, desarmatu egin zuten eritegia, eritegi eder askoa, makina bat gaixo sendatutakoa, eta etxe galant hura zapuztu egin zen segituan, hutzak janda bezala gelditu zen, eta horrekin izugarritzko kolpea eman zioten herriari, joan egin baitzen bertatik mediku, praktikante, eta maisu jendea; eta kategori haundiko beste jende ugari ere joan.

Gure auzoari, berriz, itzali egin zitzaion bizitza, hori esaten zuen behintzat gure amak, eta horregatik alde egin omen zuen Antonio gure anaia zaharrenak hamazazpi urte doi zituela, esaten omen zuen hemen zer eginik ez zegoela, etsita zegoela bere jaioterriarekin, eta ea Jainkoak mixeria hura nahi al zuen berarentzako, ea zein Jainko klase zen hura. Eta nik uste berak arrazoi zuela, hemen ahaztuta gelditu ginela, artzai txoroaren mandoa larrean ahaztuta gelditzen den bezala, berdin-berdin. Nik zazpi urte inguru nituenean, esaterako, zaila zen inguru honetan animarik ikustea, eta aldian behin etortzen zen kartazalea kenduta ez genuen beste inor ikusten; euri haunditako urteak izan ziren gainera, eta parajea erabat tristatu zen.

Behin batean, kartazaleak Montevideoko karta bat ekarri zigun, eta anaiaren karta bat zen, itsasoa oso ondo pasa zuela esaten zigun hamaika lerro ederretan, eta lanik ez zela falta Montevideon, ziudade haundia zela hura; eta poz ikaragarria hartu genuen denok Antonioren kontu haiekin, ama behintzat txoratu egin zen pozez, eta hala esan zuen orduan aitak, eskerrak pozteko gauza garen oraindik, edan dezagun ardo pixka bat.

Hiru hilabetetik behin bidaltzen zizkigun Antoniok bere notiziak, baina ez lerro askotan, gero eta lerro gutxiagotan egia esateko, baina hala eta guztiz ere etxeko guztiak konforme geunden, nahikoa genuen bizirik segitzen zuela jakitearekin; ama, batez ere, oso beldur izaten baitzen, hura beti ezbeharraren esperoan, halako

andre klasea zen, ez zekien lasai bizitzen. Baina gertatu zen Antonio nekatu egin zela, edo ez zuela betarik hartzen karta egiteko, edo auskalo zer, eta gauzak hola, gero eta tarte haundiagoarekin eskribitzen zigun, eta azkenean batere eskribitzen ez zuela jarri zen. Etxeko gizonok horretara ere ohitu ginen, Antonioren isiltasunera, baina gure ama ez, eta nola ez baitzen ohitu, bada, egundokoak pentsatzen hasi zen, eta Montevideo aipatzea infernuko sua aipatzea baino okerragoa zen berarentzat. Eta okerreña zen kartazaleari botatzen zizkiola kulpa guztiak, eta ez ziren gauzak pentsatzeari ekin zion; esaten zuen kartazaleak ez zizkiola Antonioren notiziak ekarri nahi, herrian bertan erretzen zuela papera gure etxerainoko bidea ez egitearren, eta guk ezetz, ez esateko txorakeriarik, uzteko kartazalea bakean, baina alferrik izan zen, halaxe segitu zuen amak burutik zeharo nahastu zen arte. Eta orduan, nahastu zenean alegia, gure kontra ere jarri zen, eta sekulako begiradizoak botatzen zizkigun sukaldean sartzen ginen bakoitzean, eta zera esaten zigun, guk gordetzen genizkiola kartak Antoniori, genion inbidiagatik, Jainkoaren kastigua ere bazela halako jende simaurraren artean gertatu izana, eta horrelakoak eta okerragoak entzun behar izaten genituen isil-isilik, eta pena haundia hartzen genuen denok, eta hala esan zigun behin aitak anaia Joxeri eta bioi, aizue semeak, ikusten duzue nola dagoen etxeko andrea, eta andre hori zuen ama duk, eta lan asko egin dik zuen alde, eta ez diozue amorrazorik hartu behar, ez nitek holakorik nahi gure etxean; eta Natalio zaharrak ere gauza bera esaten zigun, ez hartzeko aintzat amaren juzku txarrak eta gainerako sospetxeriak. Natalio zaharra kanpotarra zen izatez, baina etxeko egiten zitzaigun minako garaietatik, gure tabernan apopilo sartu zenetik, eta eskola haundiko gizona zen, eta anaia Joxeri eta bioi hitz egin bitartean burua astintzen zuen etsita bezala, eta gure amarena neurastenia zela esaten zuen, gauza alua, gauza benetan zaila, inongo medikuk sendatuko ez zuena. Baina halere petrikiloa ekarri genuen, baina alferrik, ez zion ezer berririk asmatu, eta halaxe esan zuen gizon hark, bizi nahi balu biziko litzateke baina andre honek ez du bizi nahi eta zuek jakingo duzue zer egin

diozuen, eta guk orduan isiltzeko esan genion, ez zela batere zuzen ari, guk ez geniola ezer egin, eta ea zer uste zuen, ea bera gu baino gehiago al zen, eta halaxe joan zen gure etxetik, erdi haserre, eta bera joan eta handik astebetara ama txito bat bezala kuxkurtu zen sukalde bazterrean, eta begiak itxi eta joan egin zen mundu honetatik.

Nahiz eta gure ama izan, anaia gaztea eta biok alegratu egin ginen bere heriotzarekin, sufritzekotan hobea baita hiltzea, eta amak asko sufritzen baitzuen. Aita eta Natalio, ordea, nahiko eroriak ibili ziren harrezkero, eta aitak ezin zuen kendu gogotik, eta beti amaren kontuak ekartzen zituen hizpidera, eta batzuetan hala ematen zuen, bera ere nahastu egingo zela. Eta Natalio zaharra sukaldeko lanetara jarri zen amaren partez, eta horrela ibili ginen garai hartan, ahal bezala noski...».

Puntu honetan eteten da aurreneko aldiz haria. Ez dakit ziur zein burutazio ibili zituen narratzaileak etendurak dirauen bospasei minutuan; baina badirudi bere oroitzapenekin segitu zuela, zentzu handirik gabe, bere bizitzaren istorioan aurrera eta atzera egingez.

Hori pentsatzeko bidea ematen du, behintzat, hariarena konpondu eta hurrengo pasartean entzuten denak. Narratzailea ama bizi zueneko garaietara bihurtzen da berriro, eta Obabako auzo hark nozitutako beste galera baten berri ematen digu. Alde batera, ez da batere arraroa kontatzeko modu hau, zeren holakoxeak izaten baitira, nahasiak eta zuzenik gabeak, mintzoaz baliatuz osatutako istorio gehienak. Bestera, ordea, hizlaria luzamendutan dabilelako irudipena hartzen da; istorioaren muinera iristeko gogorik ez balu bezala.

Nolanahi ere, ez da iritziak emateko unea, baizik eta harian gelditutako hitz transkribaketa egitekoa. Ekin diezaiogun, beraz, bigarren pasarteari.

«...anaia gazteak eta biok sortzen genuen denbora nola edo hala pasatzeko aitzakia, eta ehizean ibiltzen ginen maiz, eta arrantzan ere

bai eskuz, amuarraiak eta amuarrai semeak harrapatuz, eta amuarrai semeak pertz batean sartu eta zentral elektrikoraino eramaten genituen, eta honen alboetako putzu ttikietan edukitzen genituen haundi egiten ziren arte.

Zentrala ere hutsik zegoen ordurako, ez zen han bizi garai bateko gizona. Minak geratu eta gero ere bertan segitu zuen, ez zuen alde egin nahi antza, baina azkenean horretara behartu zuten, eta joan egin zen. Eta joateko bezperan gizonak zer egingo eta gure etxeraino iritsi zen, eta herritik bazihoala esan zigun, beste erremediorik ez zeukala, eta barkatzeko argirik gabe uzten bagintuen, konprenitzeko, konpainia haundia etorri arte bakarrik izango zela, urte pare bat gehienera, eta guk baietz esan genion, konprenitzen genuela, eta orduan amak eskilarapeko ardo botilarik hoberena eskaini zion biajerako, eta zentralakoak, mila esker etxeko andre, mila esker, grazik oraindik zu bezalako damak badirela mundu negargarri honetan, hori esan zion, holakoxea baitzen haren hitz egiteko modua; dudarik gabe guk baino eskola gehiago zuen, Nataliok berak baino gehiago ere bai. Eta gero botila han bertan ireki behar zela adierazi zigun, eta denon artean edango genuela, eta ateratzeko urdaiazpiko pixka bat, berak eta denon artean edango genuela, berak gonbidatzen zuela noski, eta han eseri ginen denok mahaian, ttikiak ginenak ere bai, eta oso rato ona pasa genuen bere kontuak entzunez, nola salduko zuen alanbretako kobrea eta non jarriko zen bizitzen, eta argiz beteta egon ginen denok patxada ederrean.

Horrelaxe gelditu ginen argirik gabe ere, eta argia gauza printzipala da, eta oso merkea egiten duen mesederako, baina ezin denean ezin da, eta Nataliok oso gauza xebreak esaten zituen arazo hura zela eta, esaterako ikusezin bihurtuta geundela mendi zulo hartan, argi indarririk gabe iluntzean gu ikusiko gintuenik ez zela munduan, eta gu zera ginela, berak behin ikusitako zine batekoak bezalako jendea, zine hartan jendeak ere ez zuela elkar ikusten, eta hori oso bentaja haundia izaten zela gerra garaietan. Guk adi entzuten genion, ez baikenekien zein gauza klase zen zinea, non ikusezinak ere ikus zitezkeen. Baina Nataliok mundua ibilia zuen, eta errespetua

genion denok, eta esaterako predikatzailleak etortzen zirenean, bada, kontra egiten zien arrazoi zorrotzez, eta haiek emakumea etsaia bera zela esaten zigutenean, kontuz ibiltzeko desio lizunekin, orduan berak zaudete isilik, egiten zuen oihu, sartu ezazue zuen bizar haundi hori ahoan eta trabatu ezazue mingaina, astakeria besterik ez duzue esaten eta; hola hitz egiten zien Nataliok, eta baita predikatzailleak ikaratu ere. Eta, pentsatzen jarrita, horregatik utziko zioten predikatzailleek guregana etortzeari, Nataliori zioten ikaragatik; salbajiak ginela pentsatuko zuten, edo holako zerbait.

Astean behin Joxe eta biok herrira jaisten ginen, tierrak eman-dakoa edo zekorren bat saltzera, eta bertan bazkaltzen genuen, Obabako ostatu haundian, eta ederki asko bazkaldu gainera, eta gauarekin etxeratzen ginen. Behin bazkaltzen ari ginela, kontrabandoan ibiltzen zen gizon bat inguratu zitzaigun, eta makina ttiki bat erakutsi zigun, hura radioa zela, ea halako bat nahi genuen, eta anaiak eta biok segituan hartu genuen kapritxoa, eta baietz esan genion, ekartzeko bat hurrengo asterako. Agindu bezala ekarri zigun, eta beltza zen, eta bi xarpa zituen belarrietan bi botoi jarri ahal izateko. Eta belarriei bi botoi haiek egokitu eta ahots bat entzuten zen, oso ahots xelebrea, beste mundukoa balitz bezala, eta hura erosi genuen ezker ez zegoen asperturik gure etxean, eta jende asko xamar inguratzen zitzaigun, beste auzotakoak eta horrela, eta aho zabalik gelditzen ziren denak guk botoiak jartzen genizkienean, eta gure aitak miraria zela esaten zuen, ikusita ere ez sinistekoa. Negua etorri zenean, berriz, radioa isil-isilik gelditu zen, eta hala esan zuen aitak zeharo penatuta, beste mundutik hitz egiten duen hori ere hil duk, baina Nataliok ezetz, ezer ez entzutearen arrazoa elurra zela, elurra edo eguraldi txarra, eta hauxe izan egia, ez aitarena, udaberrian berriro ekin baitzion gizon hark hitz egiteari, eta behin ere baino garbiago gainera.

Eta gero semea eduki genuen anaiak eta biok, biok batera, eta hori izan zen radioa mutututa zegoen batean. Goiko errotako alaba etorri zitzaigun etxera, radioaren aitzakiarekin noski, eta berak bazekien ondo asko eguraldi txar harekin ezer ere ez zela entzungo,

eta halere etorri egin zen, eta manta zaharra soinetik kendu zue-
nean ederki asko ikusi zen hura zertara zetorren, gizon gogoia zeu-
kala noski, mantaren azpian hotzerako batere egokiak ez ziren arro-
pak baitzeramatzan, kamisoi antzeko zerbait zekarren eta agerian
gelditzen zitzaizkion izterrak, izter mardul askoak, eta nola Joxe oso
atrebitua baitzen, bada, atzaparra bota zion, eta bai barrez hasi ere
errotariaren alaba, eta orduan gu biok, neu ere bai, ufaka hasi gi-
nen belarretan biraka eta zilipurdika, eta estali egin genuen neska,
aurrena Joxek eta gero nik, ez zen giro ganbara hartan ondo esne-
tu ginen arte, baina esnetu eta gero zorion batean egon ginen hi-
rurok, belar gainean etzanda eta azkureka.

Handikan bi hilabetera edo etorri zitzaigun errotaria bere ala-
ba bete genuela esanez, eta guk baietz, eta berak orduan ea guta-
ko zeinek estali zuen, eta guk ba zera, alegia biok bete genuela, bio-
na zela umea, eta berak baina zer zerrikeria da hau, eta Joxek erantzun
orain hasi zaitez zu predikatzaileak bezala, zuri zer ajola dizu etxe
honetakoak, zu joan zaitez errotara eta gelditu zaitez han, eta bi-
dal ezazu alaba lehenbailehen...».

Hortxe bukatzen da entzuteko moduan gelditutako bigarren
partea, eta hori dela eta, ezin dugu bi anaiak azken arazo horri bu-
ruz erabaki zutena jakin. Halere, ez zen ezkontzarik egon; horren
federik ez da azaltzen ez Obabako elizan ezta udaletxean ere. Ga-
rai hartako zerrendetan azaltzen dira, bai, Jose edo Francisco ize-
na duten ezkongaiak, baina banan-banan aztertu eta istorioarekin
zer ikusirik ez dutenak direla ziurtatu dut.

Bi anaiak andrearekin eduki zuten harremana legez kanpokoia
izan zen, beraz. Eta, ikusiko den bezala, aurrerantzean areagotu bes-
terik ez da egingo bi anaien jokaera horrek adierazten duen *izuta-
suna*; gizarte edo munduarekiko izan zuten ardura eta gogorik eza.
Hori garbi azaltzen da umearen jaiotzarekin hasten den hirugarren
pasartean.

«...aitak eta Nataliok ere gustura hartu zuten neska, ondo bai-
tzetorren emakumezko bat gizona besterik ez zegoen etxerako.

Umea jaio zenean udazken partea zen, eta apika horregatik ekarri zuen hainbeste tristura gure Jose Franciscok, Jose nire anaiagatik eta Francisco niregatik, eta laster asko konturatu ginen zein gizaseme haundia izango zen, oso haundia, ikaragarria, indar haundikoa, ikustekoa zen, gero, nola astintzen zuen sukaldeko ma-haia artean zutik jartzeko gauza ez zela, eta aitak horixe esaten zuen, hau duk umearen sasoia, eta Nataliok berriz zera zioen, alemana zirudiela, halako begi urdinekin eta halako ile horiarekin, eta ezizenez *alemana* gelditu zen gure semea; itxura hori bera omen dute alemanek, oso zuriak omen dira haiek.

Eta denbora aurrera zihoan beti bezala, eta belarrietara botoirik eramane gabe entzuten zen radio berri bat baguen, eta baita orain ibiltzen ari naizen beste makina hau ere, eta herrira jaisten ginenean ume eta guzti jaisten ginen, eta guztien ahotan zegoen gure semearen edertasuna, eta guk *alemana* zela esaten genien, eta probintziako gizonik indartsuena zetorrela. Baina ez zen dena parte oneko gauza, baziren kezkek ere, eta horregatik esan dut arestian Jose Franciscok tristura asko ekarri zuela. Eta hori izan zen umeak hitz egiten ikasten ez zuelako. Etorri zitzaion garaia eta ez zekien *ama* edo *aita* esaten ere. Eta errotariaren alabak baina umea ez al duzu eza-guerarik esaten zion, ez al duzu hizketan ikasi behar, ez al dakizu mutil haundia zarela eta mutil haundiek kontu asko esaten dituztela, baina umea isil-isilik, eta Nataliok normala zela esaten zuen, batzuetan atzeratuta etortzen direla gauzak, baina horretan ez zebilen zuzen, ez zeukan arrazoirik, arrazoia errotariaren alabak zeukan. Indarrarena ez zen dudatan jartzekoa, hori ez, eta, esaterako, sei urte zituela, ahuntz bat jo zuen buruan, eta seko utzi zuen bertan, baina hitzik ez zuen esaten sei urterekin, algara besterik ez zuen egiten, algara goizean eta algara gauean, eta beste batzuetan berriz haserretu egiten zen zeharo, eta joka hasten zen gurekin, jo egiten zuen aurrean zeukana, izan zedin bere ama, izan zedin Natalio, izan zedin edozein; eta inor ezin bazuen jo, orduan bere buruari egiten zion min, paretari emango zion kopetarekin edo holako zerbait. Eta okerrena zen ez ginela ume berririk ekartzeko gauza, ez ni eta ez

Joxe, eta halako batean errotariaren alaba aurrean jarri eta honek ezin du hola segitu esan zigun.

Horregatik bidali genituen andrea eta Natalio umearekin ziu-dadera, hango mediku batek ikus zezan, eta han joan ziren bide-an gora, eta etorri ere bai azkar asko, umea mutua eta gorra omen duk esanez. Hori entzunez aitak harroaldi bat izan zuen, eta oi-huka ere hasi zen, mutua eta gorra izango duk, baina munduko in-dartsuena ere bai, baina besteok ez genion bide hartatik segitu, eta errotariaren alaba haserretu eta guzti egin zen aitaren ateraldiare-kin, andre bizkorra baitzen hura, eta hark sumatzen baitzuen Jose Franciscok beste zerbait ere bazuela. Eta bai izan ere, alajaina. Zer zuen, nik ez dakit, eta beste inork ere ez daki, baina zerbait bazuela hori gauza segurua da. Nolabait esateko, umea gehiegi mugitzen zen, eta batez ere burua mugitzen zuen, etengabe, eta ematen zuen bere gisara mugitzen zitzaiola, eta behin kanpotar batzuk etorri eta erretratu bat egin nahi izan zioten eta amak esan zion behingoz behin-tzat egon hadi geldi Jose Francisco, erretratu bat egin nahi ditek eta, baina bai zera, alferrik, umeak han segitu zuen burua gora eta be-hera mugituz, eta kanpotar haiek erretratua egin gabe joan behar izan zuten, eta gu oso penatuta gelditu ginen, eta lanerako gogo-ak ere joan egin zitzaizkigun, eta ia erabat utzi genituen etxeko la-nak. Eta, holako batean, gu ia konturatu gabe, Natalio hil egin zi-tzaigun katakume bat bezain isil, eta umeak hura ere ez zuen sentitu, ez zen konturatu Natalioren faltaz, eta hori beti elkarrekin ibiltzen zirelarik, eta errotariaren alaba lehertu egin zen orduan, ume ho-nek buruan ez dauka ezer, animarik ez dauka, eta erru guztia zue-na da, bataiatu ez zenutelako, eta anaia Joxe eta biok zer esan ez ge-nekiela gelditu ginen.

Hola gauzak, etxeko denok asko bajatu ginen, eta gainbehe-ra gindoazen egunetik egunera, eta bien bitartean Jose Franciscoren indarra zen goraka egiten zuen gauza bakarra, eta nola jotze-ko bere grina harekin segitzen zuen, bada, beharrezkoa gertatzen zen umea atariko intxaurrari lotzea, eta halaxe edukitzen genuen, arbo-lari lotuta, eta, jakina, hori ez zitzaion batere gustukoa errotariaren

alabari, eta beti lanturuka ibiltzen zen, libra ezazue umea esanez, eta guk erantzuten genion, baina andrea nola nahi duzu libratzea, ez al zara akordatzen lehengoan lurrera bota zintuela; baina hori ez zen arrazoia berarentzat, bere erraiak zirela esaten zuen, eta horrela ibiltzen ginen beti, nazkatuta. Eta hala, ostiral batean izan zen, hitz egin nuen anaiarekin, hartu umea bere kate eta guzti eta basora eraman nuen, etxetik oso urrutira. Baina ezin izan nuen hil. Labana atera egin nuen, baina gorde ere bai azkar asko. Izan ere, Jose Franciscok begiratu egiten zidan, emaidak kolpea esanez bezala, emaidak kolpea txahal bati bezala, eta nola ezin bainuen bere begiratu hura sufritu, bada, korrika abiatu nintzen basoan behe-
ra, eta ez nintzen etxera arte gelditu. Umea bere indarrez biziko zela pentsatu nuen, beste edozein abere adina bazela horretan.

Errotariaren alaba galdezka hasi zenean, gezurra esan genion, umea ziudadean zela, hara eraman zuela sonbreruz janzten zen gizon batek, baina ez ordea berak sinistu, eta agian senak aginduta mendira jo zuen semearen bila gu madarikatzen gintuela, eta joan eta handik bi egunetara itzuli zen, arnasa pasata, eta...»

Jardunak isilune labur bat dauka puntu honetara iritsi eta gero, harian dagoen azkenekoa. Halere, ez da oso zaila narratzaileak tartet horretan dioena osatzea. Dударik ez bere *emaztearen* heriotza aipatzen duela, eta baita honek hiltzeko aukeratu zuen modua ere; zeina –Obabako andre batek esan zidanez– bere burua erreka-putzuan itotzea izan baitzen.

Esan dezadan, bide batez, bi anaien aitak ere hila behar zuela umea basora eramana izan zen garaietarako. Istorioaren hurrengo pasartean ez da bere aipamenik egiten. Oso edade haundikoa izango zenez, agian bere heriotza *arrunta* iruditu zitzaion narratzaileari, eta horregatik ahaztu zitzaion.

Baina joan gaitezen hurrengo gertaerekin. Azkenean heldu gara aitortzaren muinera. Orain arte, bazirudien narratzailea gogoratze hutsean ari zitzaigula, aspaldiko kontuen kronika bat egin nahian edo. Ordea –segidan bistakoa izango denez– ez ziren tankera

horretakoak izan grabaketara bultzatu zuten arrazoiak. Berak gertaera hurbilak zeuzkan gogoan; grabaketa baino egun batzuk lehenagokoak. Horregatik ekiten dio, bat-batean, orainaldiko formetan hitz egiteari. Baina, esan bezala, joan gaitezen hurrengo gertaera horiekin; ezagutu dezagun istorioaren bukaera.

«...hala joan zen gajoa, halako emakume zintzoa, batere kulparik gabe joan, eta ordu ezkerero ia gauero akordatu izan gara berarekin, askotan hitz egiten dugu gure etxera radioaren aitzakiaz inguratu zen aurreneko aldi hartaz, nolako garbitasunez azaldu zen, eta zein izter mardulak zeuzkan, eta lurperatu genuenean ere baratzeko lurrik onenean jarri genuen, hori eta gehiago merezi baitzuen hark.

Ordurako damututa geunden Joxe eta biok, eta laster eman zigun denborak arrazoa. Emaztea hil eta zortzi bat egun geroago baratzeko landare asko zapalduta zeudela ikusi genuen, eta bere gorputza tapatzen zuen lurra ere ibilia zegoela, norbait han atzazka ibili izan balitz bezala. Eta isilik gelditu ginen biok, alegia Jose Francisco bizirik zebilela eta auskalo nola, baina umeak sentitu edo jakin egin zuela bere amari gertatutakoa, eta erdi erotuta zegoela horregatik, joanak zitzaizkiola parte txarrekoak eta faltan bilatzen zuela berari bizia eman ziona, eta gauzak hola, hots egin anaiari eta Montevideora joatekoa azaldu nion, hara joan eta bilatuko genuela Antonio gure beste anaia, eta hark lagunduko zigula ofizioren bat hartzen, edozein gauza hobe zela etxean gelditzea baino. Eta berak baietz esan zidan, eta hiru hilabeteko epean abiatzekotan gelditu ginen.

Baina nire anaia Joxek ez du inora joateko aukerarik izango. Hila azaldu zen basoaren erdian duela bi aste. Nola ez baitzen etxera azaltzen, ezta gautu eta gero ere, bada, ni larritu egin nintzen, eta sukaldean gelditu nintzen zain, eta gau osoa pasatu nuen talaian. Eta nola goiza heldu eta azaldu gabe segitzen baitzuen, bada, inguruetan lau gizon bilatu eta bere bila abiatu nintzen, basora, eta asko ibili ginen, basoan alde batera eta bestera, eta azkenean izugarrizko kolpea hartu nuen Joxe hala ikusita, txikituta zeharo eta

harramazkaz betea, otso batek harrapatu izan balu bezala, eta gizon haiek guztiak niri begira gelditu ziren, zer egingo dugu orain esanez bezala, baina nik ezin nuen ezer agindu, eta negarra ere egingo nuen, horrek lotsa eman izango ez balit.

Halako batean, han bertan lurperatuko al genuen esan zidan batek, eta nik baietz egin nuen, eta uste dut orduantxe bertan hartu nuela gaur edo bihar beteko dudan erabakia.

Pago gazte baten alboan eman genion lur Joxeri, gizajoak ez zuen asko pentsatzen hola bukatu behar zuenik, ilusio haundia zeukan Montevideoko biajearekin, oraindik ikusten natxiok aberastu egin behar dugula esaten zidan barrezka, eta seguru asko gertatu ere hala gertatuko zen, bera oso gizon argia baitzen, eta oso atrebitua ere bai, ni baino askoz gehiago.

Eta bukatu zuten gizonak beren lana, eta ari zen haietako bat gurutze bat bi makila okerrekin antolatzen, eta ari zen beste bat zuk zer nahi duzu guk parte ematea edo zer niri galdetzen, eta hor non orduantxe bertan buru bat ikusi nuen garo artean, eta hasiera batean ez nintzen konturatu eta pentsatu nuen, baina zein dago hor garo artean gordeta eta guri zelata eginez, eta hori pentsatu eta Jose Francisco garrasika hastea dena bat izan zen, Jose Francisco baitzen guri begira zegoena, eta garrasia ikaragarria izan zen, marru bat izan zen ia, eta hura entzun eta nirekin etorritako lau gizonak, gizon sendo askoak, dardaraz jarri ziren neskatxak bezala, eta ihesean abiatu ziren, eta ni ere izutu egin nintzen, baina ez besteak bezala garrasiagatik, baizik eta argia egin zitzaidalako eta garbi asko ikusi nuelako zein genuen hiltzailea, eta hala pentsatu nuen, baina umea, nola egin diok hori hire aita gazteenari, zergatik puskatu duk halako amorrazioekin, baina pentsamendu bajuak ziren, Jose Franciscok ez baitu batere kulparik, berak ez baitaki zer egin duen ere; berak dakien gauza bakarra da basoan bakarrik dabilela, azeriak edo gabiroiak baino gutxiago dela, azeriek edo gabiroiek izaten baitute ama eta izaten baitute konpainia, eta berak berriz ez bata eta ez bestea, eta berak hala esango du baratzerara joan eta bere ama tapatzen duen lurrari eragiten dionean, baina zergatik ez dit hitz egiten mundura ekarri

ninduenak, eta horregatik izango zion amorrazioa Joxeri, Joxek askotan gogor egiten ziolako, pentsatuko zuen berak zituela kulpa guztiak; eta hau da egoera eta honek ezin du hola segi, eta lehenago esan dudan bezala, erabakia hartua daukat. Mendira aterako naiz bila, eta Joxeri lurra eman genion egun hartan bertan egin behar nuena egingo dut berarekin aurrez aurre jartzen naizenean, esango diot Jose Francisco maitea, hator hire aitaren besoetara, biok bakearen premian gaudek, eta egon hadi lasai, laster izango gaituk biok amarekin eta Joxerekin, Joxek barkatuko zian eta barka egiok heuk ere, hori guztia esango diot ahal dudan ondoen, eta halaxe bukatuko da gure etxearen bizia, garai batean hain alaia zena.

Egon naiz etxea erretzekotan ere, baina ez dakit Antonio gure anaia Montevideon geldituko den ala ez, igoal etorri egingo da, agian fortunarik gabe, eta bere jaiotetxea behintzat eduki dezala zain, horrenbeste eskubide badu eta. Eta Joxeri lur ematen lagundu zidaten lau gizonek zaindu eta erabili dezatela bitartean.

Makina honetan markatutakoa San Martineko ermitaren atarian utziko dut, hartara Obabako erretorearen babesak izan dezan. Entzun dezala erretoreak nik hemen azaltzen dudana, inork ez ditzala pagatu nik egindakoak.

Hemen bukatzen da aitortu beharreko guztia, eta anaia amerikanoa inoiz itzuliko balitz, bada, esan hari ere egia, eta muxu bat eman gure partetik».